

# **EUSKAL ITZULPENGINTZAREN HISTORIRAKO ZUHINAK ETA MATERIALAK**

Xabier Mendiguren Bereziartu

---

---

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos  
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 2 (1992), p. 331-351  
ISSN 0212-7016  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Mundu mailako itzulpengintzaren historia burutzeko oraindik aurrean ugari egin beharra baldin badago, eta normalean itzulpengintzaren historiaz hitz egitean ia Mendebaldekoaz soilik hitz egiten delarik, bi multzo horien barruan kokaturik dagoen euskal itzulpengintzaren historia bat burutzeko ere oraindik aurrepauso franko eman beharra dago. Beraz, artikulua labur honetan egingo dena, tituluan aurreratu denez, zuhin edo nondik norakoak eta zenbait gai edo material eskaintzea izango da etorkizunean osatu, aldatu eta zuzentzeko.

Edozein historiari planteatzen zaion lehen arazoetako bat gertakarien oihan sarrian sartu eta ikuspegiari zentzua emango dion arokatze edo periodizazioa burutzearena izan ohi da. Alor honetan orain arte itzulpengintza unibertsalaren alorrean eman diren pausuak aski behin-behinekoak direla aitortu beharra dago. George Steinerrek itzulpenaren teoria, praktika eta historiari buruzko bibliografia lau arotan saikatu du:

1.- Zizeron eta Horazioren garaietatik Fraser Tytler ingelesaren garaira arte.

2.- Bigarrena Valéry Larbauden *Sous l'invocation de Saint Jérôme* (1946) arte

3.- Makinabidezko itzulpenari buruzko lehen ikerketak argitaratzen diren arte.

4.- Hermeneutikara jo eta itzulpengintza eta interpretaritzaren inguruan ikerketa ia metafisikoak egiten diren une honetara artekoa, nahiz eta aurreko aroarekiko parez pare ere garatu dena izan.

Steinerren ikuspegiak zenbait alderdi interesgarri badu ere, bitxia gertatzen da 1700 urte aro batean sartzen dituen bitartean hogeitamarreko epeari bi aro ezberdin egotzen dizkiolako. Presentera gehiegi makurturiko arokatze bat dela esan liteke eta behin-behinekotasun handiegiko sailkatze baten aurrean gauden susmo guztia hartzen diogu.

Ljudskanov bulgariarrak<sup>2</sup> proposatzen duen bezalako "itzulpenaren tipo historikoen" sailkapen bat ez da interesik gabea, baina hitzez hitzekoa, zentzuzkoa, librea eta egokia bezalako lau etiketaren azpian historiako itzulpengintza guztia sailkatu nahi izatea sinpleegia. Gainera, itzulpengintza-mota horiek sarritan parez-pare eta nahasturik gertatu izan dira eta artifizialegia gertatzen da berez askoz konplexuagoak diren prozesuak abusuz estilizatzen eta geometrizatzen dituen heinean.

Euskal Herriari dagokionez, interpretaritzaren alorrean eta aldi joanen ilunpean kokatu behar da translazioaren hasiera eta han-hemenka zenbait aztarna sentzea baino askoz gehiago ezin

---

1.- Steiner, G. (1975): *After Babel*, London: Oxford University Press, 23 or. eta hh. Bada gaztelaniako itzulpena: (1980) *Después de Babel*, Aspectos del lenguaje y de la traducción, Fondo Cultura Económica, México.

2.- Ljudskanov, A. (1969). *Traduction humaine eta traduction mécanique*, Centre de Linguistique Quantitative de la Faculté des Sciences de l'Université de Paris. Dunot.

dezakegu, esaterako, Aymeri Picauden<sup>3</sup> Hiztegitxoa erromes arrotzak gure herritik igarotzean elkar ulertzeak sortzen zituen premien lekuko da. Bestalde, jakina da, Nafarroako erresumako auzitegietan beti izan zirela itzultzaileak, edo agian interpretariak areago, eta foruak eta ordenantzak gaztelaniaz idatzirik egoteak ez du esan nahi biltzarkideen hizkuntza gaztelania izaten zenik. I. Estornesek dioenez, eztabaidak euskaraz egiten ziren eta idazkariek transkribatu eta erdaratzen zituzten esanak artxibategian hala gura zitezten.

Korregidoreak berak ere, 1860ko dokumentu batek adierazten duenez oso berandura arte euskaraz hitz egin izan zuen, eta agienez, Karlos V, Enperadoreak berak ere euskara ikastera bere burua beharturik ikusi zuela adierazten duten aztarnak ba omen dira. Horregatik, zantzu guzti horiek erakusten digutenez, 1564ean Pabeko sinodoan Joannes Leizarragakoari itun Berria itzultzeko eskatu ziotenerako bazen euskaldunon artean nolabaiteko interpretaritzaren edo itzultzailetza tradizioa.

Arokatzeari dagokionez, euskal itzulpengintzaren hastapenak 1571ean ezarri behar dira Joannes Leizarragaren Iesus Christ Gure launaren Testamentu Berriarekin eta beronen itzulpengintzak aro oso bat hartzen duela esan genezake bera baitan dituen ezaugarriak kontatzen harturik.

Euskaratik gaztelaniara buruturiko testuetan Refranes y Sentencias comunes en Bascuente, declaradas en Romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas. (Julio Urkixok RIEven berrargitaratua) aipatu behar da.

Bigarren aro bat katolikoek erlijio-krisia gainditzearen ondorioz sortzen den erlijiozko literatura euskaratuak eratzen du Materre, Etxeberri, Haranburu, Argaignarats, Voltaire, Silvain Pouvreau, Chourio, Haraneder, Maister, Larreguy eta abar bezalakoekin eta Frantses Iraultzarekin amaitzen da.

Euskaratik erdarara (frantsesera) egindako itzulpenen artean Oihenarten Les Proverbes Basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur (1657) aipatu behar da. Hegoaldean Mikoleta, Beryain eta Kapanaga bezalako itzultzaileak nabarmentzen dira aro honetan.

Hirugarren aroa, Hegoaldean, A. Larramendiren eraginpean sortzen da Kardaberaz, Juan Antonio Mogel, Añibarro, Bizenta Mogel, Jose Kruz Etxeberria eta abarrekin eta Iparraldean D'Abbadie eta Bonaparte Printzearen itzalpean Intxauspe, Duvoisin, Uriarte, Dasconaguerre eta Archu bezalakoekin. Foruen galerarekin ixten da Hegoaldean aro hau.

Laugarren aroa XIX mendearen azken aldera, foruen galeraren eraginpean, joera herritarreko itzultzaileekin hasten da, besteak beste, Arrue, Jose Ignacio Arana, Antia, Soroa. Mendearen hasierarekin eta Itxarkundeak emandako bultzadarekin Azkue eta bere jarraitzaileak eta Aranistak (Zabala-Arana, Arriandiaga, Eguzkitza) gailentzen dira. 1936ko Gerrate Zibila-ren aurre eta ondoko prosagintzan joera guzti horien sintesiak aurkitzen dira Orixen, Zaitegi, Olabide, Ibinagabeitia, Larrakoetxea, Barandiaran, Etxaide, Berrondo eta abarrekin.

Bosgarren eta azken aroa 70. hamarkadarekin eta euskara batzearen prozesuarekin hasi, itzultzaile Eskolarekin gotortu eta "euskal itzulpengintza modernoa" dei genezakeena eratuz 80. hamarkadan zehar hedatzen dena da, profesionalizazioa edo erdi-profesionalizazioa ezaugarri nagusi delarik.

Euskal itzulpengintzaren garapenari bagagozkio aipatu ditugun laugarren eta bosgarren aroa ditugu beste zenbait herrialdetan bezala eta Ljudskanovek aipatzen dituen hitzez hitzeko,

3.- Villasante, L. (1961). *Historia de la literatura vasca*, Colección Larrún, Editorial Senda, 37-38 or.

zentzuzko eta librearen joerak gaindituz eta integratuz itzulpen egokirako (itzulpen integrala, Goetheren zentzuan) oinarriak finkatu dituztenak, nazioarte mailan gero eta homologagarriagoa den joera bat indartuz. Bestalde, ohargarria da itzulpengintzaren prozesu hori nola joan den parez pare euskararen bateratzearekin: lehenik Azkuek proposaturiko “gipuzkera osotua”ren ildotik eta ondoren “euskara batua”renetik, klasikoen altxorra berreskuratuz, purismoaren zurrunkeriak malgutuz eta europar prosaren ondasunak bereganatuz.

Ondoren aroz aro azterketa labur bat egiteari ekingo diogu bakoitzaren ezaugarri nagusiak izan litezkeenak aipatuz.

### Itzulpengintzaren sorrera eta hastapenak

Errenazimendu garaian piskanaka hizkuntza nazionalak sortu eta pentsamenduaren komunikabiderako tresna egokitzat jotzen dira administrazioa, literatura, zuzenbidea, diplomazia, filosofia eta zientziaren eremu ezberdinetarako. Ordura arte, hizkuntza nagusia eta eredia izan zen latinaren hegemonia piskanaka galtzeak eta “vulgares” deituriko hizkuntza nazional-estatalek protagonismoa hartzean, itzulpengintzaren baitan garrantzizko aldaketak gertatzen dira. Du Bellayk “frantses vulgarrak” hitz egiten zuen bitartean, Etienne Doletek hizkuntza frantsesaz, italiarraz, espainiarraz, alemaniarraz, ingelesaz eta abarrez hitz egiteari ekiten dio.

XVI mendeko itzultzaile nagusia Martin Lutero da, 1522tik 1534 bitartean Biblia osoa alemaniarera itzuli zuelako ezezik, baita bere *Sendbrief vom Dolmetschen* deritzon gutun ospetsua itzulpengintzaz zeuzkan irizpideen berri eman zuelako ere.

Itzulpengintzari eta, bereziki Bibliaren itzulpenaren alorrean, Luterok egindako ekarpena zenbaterainokoa izan zen aditzera emateko, ezinbestekoa da bere garaian kokatzea. Ordurako Biblia Europako hizkuntza nagusienetara itzulirik zegoen, beraz, baziren frantses, ingeles, holandera, txekiera, alemaniera eta abarrezko itzulpenak, eta ez da ahaztu behar Rotterdameko Erasmo eragin sakona izan zuela itzulpenean. Lutero ez zen hutsetik abiatu, haren abia-buruak onartu eta defendatzeaz gainera, sistematikoki erabili eta azken ondorioetaraino eramane zituen.

Luteroren itzulpenaren ezaugarri nagusiak larriki laburbildu nahi izanez gero honako puntu hauek aipatu beharko genituzke: jatorrizko hitzen ordena aldatzen du, laguntzaile modalak eta lokailuak erabiltzen ditu, alemanieraz baliokide onargarririk ez denean greko eta hebraierazko hitzak bazterrean uzten ditu, jatorrizko hitz bakarrak itzultzeko perpausak erabiltzera eusartzen da, batzuetan metaforak esamolde ez-metaforiko bihurtuz eta beste batzuetan alderantziz ere jokatu eta azkenik, zehaztasun exegetikoei eta testuaren baitako aldagaiei arreta bereziki kontu egiten die.

Luteroren itzulpenak eragin nabaria izan zuen bere hizkuntz esparrutik kanpora ere, eta horrela William Tyndal zordun gertatu zitzaion grekotik zuzenean ingelesera burutu zuen Itun Berriaren itzulpenean. 1535ean Genevako kalbindarrek Biblia hebraiera eta grekotik itzultzeari ekiten diote eta Johan Hussen Anaia-arreba moraviarrek txekierara itzultzen dute Biblia gerora literatur hizkuntza modernoa izango zenaren oinarriak finkatuz.

Inglaterran 1611an argitara ematen den eta gerora “King James I” bertsio izenpean ezagutu izan den Biblia ingeles modernoaren lehen eredu bihurtzen da, Luterorena alemaniar barrutian gertatu zen bezalaxe. Erlijio-gerraren parez-pare itzulpen-gerra bat ere gertatzen ari dela esan liteke, zeren eta Eliza Katolikoak testu sakratuaren ikuspegi autokratiko bati eusten dion bitartean, Trentoko Kontzilioaren erabakiz eliz hierarkia idatziaren gordailu bakar eta herriaren helmenetik aparteko hizkuntzaz, latinez, Jeronimoren “Vulgata” bertsioan idatzirik geratzen zelarik.

Itzulpenik gabeko bertsio literal honen aurka —Jeronimorena bere azalpen guztiak gora-behera aski hitzez hitzekoa da—, eraberritzaileak ikuspuntu demokratikoago baten alde agertzen dira eta ez letra soila baizik eta zentzua ere emango duen bertsio bat defendatzen dute. Horregatik, aipaturiko Biblia kalvindarrak gogorarazten du, Eliza Grekoak Origenesen garaietan zortzi bertsiotaraino zituela eta Jeronimok berak ere herrikide zituen dalmaziarren hizkuntzara itzuli zuela Biblia.

Euskal Herritik hurbilago dagoen Espainiako testuingurura etorritz, Casiodoro de la Reinarene itzulpen bikaina aipatu behar da, 1568 (Leizarragarena baino lau urte lehenago) argitaratua eta adiskide zuen Cipriano de Valerak berrikusi eta berriro 1603an berriro argitara emana. Bi itzultzaile horiek harreman estuak zituzten garai hartako europar intelektualekin eta beren ezaguera eta hizkuntzarekiko sentiberatasun apartari esker itzulpen gailen bat burutzera iritsi ziren. Hala ere, espainierazko hitzunen artean gehien hedatu eta erabili zen Biblia izan arren, ingelesezko eta alemanierazko Bibliak baino eragin txikiagoa izan zuen Espainiaren egoera sozio-politikoarengatik.

XVI mendetik hasi eta euskal literatura zentzu zehatzean hasten den garaira arte, hau da, Lore Jokoak sortzen dituen XIX mendearen azken laurdenera arte 588 tituluk ikusten duten argia lau literatur euskalkietan, baina egiazko sorkuntzak eta jatorri euskaldun samarrekoak ozta ozta iristen dira ehun bat izatera. Gaiari dagokionez liburuen %98 erlijiozkoak dira eta erdiak baino itzuliak. Ia lau mendetako epe luze hau Leizarragaren Iesus Christ gure iaunaren Testamentu Berriarekin hasten da eta Duvoisin Kapitainaren Bible Sainduarekin amaitzen da.

Gorago aipatu dugun eraberrikuntza giroan Nafarroako Erregina eta Biarnoko anderea zen Joana Albretetokoa katolizismoa utzi eta Kalvinoen irakatsiei atxeki zitzaien, euskaldunen artean bere sineste berak ezartzeko asmo sendoaz. Biarnotar batzuk Ginebraraino bidali zituen Kalvinoekin ikasketak egitera eta ondoren unibertsitate kalvindar gisako bat antolatu zuen Orthezen. Euskaldunon eraberrikuntza-egitasmo horren barruan kokatu behar dira 1664ean Pabene egindako sinodo kalvinista eta Itun Berria euskaraz jar zezan bertan Leizarragari egindako eskaria.

Erreginari atsegin ematearren urte betean burutu zuen itzulpena, Lafon jaunak uste duenez<sup>4</sup>. Oliveten izeneko bertsio bat erabiltzen zuten, kalvindarrek hedatu eta Ginebrako Biblia izenez ezagutzen zena, eta agi denez, Leizarragak Biblia horren 1560eko argitalpenari jarraitzen bide dio sarritan, hala ere Vulgata eta grekozko testua ere kontutan hartzen ditu noizean behin.

Itzulpen-joerari dagokionez, joera formalean sartzen da bete-betean: *“Haur bai erranen dut, ezen bethi orhoitik nola Jainkoaren manu expresa den haren hitzari deus edeki eztakion ez eratxeki, hala egin ahal dudan fidelkiena egin ukan dudala”*. Horregatik, testuko hitzez kanpo beste argigarrien bat tarteka sartu behar izan zuenean, letra xeheagoz idazten du, irakurleak jakin dezan hitz horiek ez direla *“textu gorputz berekoak, baina deklaragarri jarriak”*.

Euskaldunei zuzenduriko hitzaurrean aurrez-aurre daukan hizkuntz arazoa aipatzen du: *“Batbederak daki heuskal-herrian kuasi etxe batetik bertzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta diversitatea den: razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajeaz den bezanbatean, ahalik gehiena guziei adieraziteari larreiki izan gatzaitza, eta ez xoil edozein leku iakineko lenguaje bereziri”*. Lapurtera hartzen du oinarritzat, baina behe-nafarrez eta

4-. Lafon, R. (1943): *Le système du verbe basque au XVI siècle*, Université de Bordeaux, I tomoa, 54-57 or

are gehiago zubereraz blaitua. Idazkera zaindu du eta harrigarri samarra gertatzen da ikustea zeinen prosa arautu eta finkatua lortzen duen hasierako lana izateko.

Aita Akesolok ohartarazten digunez<sup>5</sup>, euskara zaharraren aztarnak ere ageri dira Leizarragaren hizkuntzan, “albei” edo “albeit” aurretik duten inperatibo-adizkiak, hurrengo gizalditik aurrera nekez aurkituko direnak, “ethor zedin”, “egin nezan” gure gaurko “etorri zen” edo “egin nuen” formen ordeaz, Jainkoari eta edonori “hika” egitea.

Latinezko maileguak ugari ditu eta Leizarragaren itzulpen-joera formalistan nabaria da itzulpena burutzean Bibliaren beste hainbat itzultzailek eta bere garaikide ziren Casiodoro de la Reinak eta Scio bezala, berak ere eskrupulu teologikoa bizi izan zuela, nahiz eta kultismo latinazalerako isuria garai hartako idazle gaztelau, frantses eta italiarren artean ere aski zabaldua zegoen. Mitxelenak oharrerazten digunez, biblikoak ez diren testuak euskaratzean askoz askatasun handiagoz eta itzulpen joera dinamikoago batera hurbiltzen dela esan genezake.

Leizarragaren itzulpen eta prosagintzako bidea itxirik geratzen da, katolikoek berriro indarra hartzean, eta euskal burgesiaren hizkuntza kultua izan zitekeen hura ahalegin isolatu gertatu zen. Beraz, arrazoiz dio J. M. Zabaletak<sup>6</sup>, Leizarragak aro oso bat betetzen duela itzulpenean, ondorengo itzulpenak beste baldintza batzuetan burutuak agertzen zaizkigularik.

## XVII mendetik Frantses Iraultzara arteko euskal itzulpengintza

XVII eta XVIII mendeetan, Bibliaren itzultzaileak arreta eta kontu handiarekin diharduten bitartean, gai profanoen itzultzaileak askatasun ia mugagabearekin jokatzeko deute, Georges Mouninek “les belles infidèles” deitu duen aroa garatuz.

Euskal Herriari dagokionez, Leizarragaren garaietatik mende hauetara bitartean aldaketa garrantzizkoak gertatzen dira gure historian: Nafarroaren konkista, “euskaldun, fededun” esamoldean gatzatzen den Trentoko kontzilioaren eragina, inprimategien hedapena, Ameriketarako emigrazioa, merkataritzaren sendarpena, Oñati (1545) eta Iruñeko (1621) unibertsitateen sorrera eta abar.

Bestalde, Trentoko Kontzilioak haize emanik zuzpertzeko den Kontrarreforma, Eliza Katolikoak tokian tokiko hizkuntza erabiliz eliztarrei dotrina irakasteko agindua ematen du eta heresiaren beldur den inkisizioak indar handia hartzen du jadanik ezagunak diren kapitulu goibelak gure artean ere idatziz.

Hegoaldea nagusitzen hasten da liburugintzari dagokionez eta Bizkaiak eta Nafarroak beren lehen euskal liburuak inprimatzen dituzte. Utergako abadea zen Juan de Beryainek *Tratado de como se debe oyr missa idazten du gaztelaniaz eta ondoren euskaraz jartzen du*. Horretarako, hitzaurrean aitortzen duenez, Iruñeko euskalkiaz baliatzen da gehiengoak ulertzeko egokina dela uste baitu. Itzulpen-prozedurari dagokionez, bai lexikoan eta bai sintaxian mailegu eta kalko ugari badu ere, zenbait gunetan askatasun osoz jokatzeko jatorrizkoa laburtuz edo beharra sentitzen duenean zenbait puntu garatuz, irakurlearen ulerkuntzari bidea lautzeko.

Bizkaian, Rafael de Micoletak *Modo breve de aprender la lengua Vizcayna* (1653) argitaratzen du eta elkarriketa edo platen erdarapena fidelitasun nabarmenez eta zehatz egin dauka, helburu glotodidaktikoz mamituriko liburu batean espero litekeenez.

5.- Akesolo, L. (1970): “*Joannes Leizarraga. Testamentu Berriaren leenengo euskeraatzaillea*”, in JAUNAREN DEIA, 33 zenb., 271-285 or.

6.- Zabaleta, J. M. (1984): *Euskal Itzulpenaren Antologia (I), Itzulpen Teoria eta Praktikorako testuak*, Itzultzaile-Eskola, Lazkao, 13 or.

Bi autoitzultzaile hauek, Euskal Herrian mendez mende luzatuko den tradizio baten hasiera-emaile direlako garrantzizkoak izaki, Silvain Pouvreau da seguraski mende honetako euskaratzailearik nagusiena Parisen argitara emandako bere hiru itzulpenekin: Guiristinoaren *Doctrina* (1656), Philothea (1664) eta Gudu Espirituala (1655). Gure garaioan lesusen imitacionea ere argitaratu zaio, baina oraindik baditu hiztegi pare bat argia ikusi gabeak.

Leizarragaren parentesialdiaren ondoren, belaunaldi oso baten buruzagi bezala ageri zaitu eta mezua argi eta garbi ematearen helburu funtzionalaren argitan burutzen ditu bere euskarapenak, jatorrizko estiloari jaramon handiegirik egiteke, inguruko erdaretan, frantsesean bereziki nagusitzen ari zen askatasun erabatekozko giroaren eta jokabidearen ildotik. Haranerrek Guduaren itzulpen berriaren Hitzaurrean Silvain Pouvreauk gaizki itzuli zituela aitortzen du, eta halaber gure mendeko puristek ere epai bera egin diote honen itzulpenari.

Beste bi itzultzaile ere derrigor aipatzekoak dira mende honetan: Michel Chourio Jesu-Christoren *Imitacionea* (1720) Bordelen, lapurteraz eta osorik argitaratu zuena eta Joannes Haraneder, aurrez Silvain Pouvreauk itzuliak zituen *Philotea* eta *Gudu Izipirituala* berriro itzuli zituen eta baita *Testamentu Berri* bat ere, 1854ra arte argia ikusiko ez zuena.

Azkenik, Axular, Geroren egilea ere aipatu beharrekoa da, zuzenean edo zeharka, inplizituki edo esplizituki burutu zuen euskaratze lan handi eta egokiarengatik, inoiz behar den adina aitortu ez bada ere, itzulpenak sail nabarmena osatzen du Sarako erretorearen obran eta ukatzerik ez dago eragin sakona izan zuela ondorengo idazle eta itzultzaileengan.

Azkenik, jakingarri gisa esan dezagun Baionan liburu bitxi bat argitaratu zela 1642an hiru hizkuntzatan *Tresora hirour* lenguaietaqua francesa, espagnola eta hasquara. Aurretiaz Lyonen argitaratu zen *L'Interpret ou traduction du françois, espagnol et basque* izenarekin eta egiletzat Voltaire ageri zen. Liburuak elkarrizketak, errefracuak eta esaerak dakartza hiru zutabetan eta aipaturiko hiru hizkuntzak parez pare irakastea du helburu.

Mende honen azken aldera ingeles itzultzaile eta itzulpenaren gogoetari garrantzikoak agertzen zaizkigun itzulpenaren alorrean, hala nola Abraham Cowley, Dryden (1680) Alexander Pope (1715) G. Campbell (1789) eta A. Fraser Tytler (1790) eta jadanik nabarmentzen hasiak dira Frantzia bertan ere Batteuxekin edota Alemanian Schlegelekin erromantizismoan nagusitu diren itzulpenari buruzko irizpide berriak, jatorrizkoarekin itzulpena alderatzean behar-beharrezko aldaketak soilik onartzen zituztenak.

## A. Larramendi eta Bonaparte Printzearen eraginpeko itzulpengintza

Aita Manuel Garagorri Larramendi (1690-1766) andoaindarrak mendearen lehen erdian argitaratu zituen bere obrak: *El Imposible Vencido*, *Arte de la Lengua Bascongada* (1729) eta *Diccionario Trilingüe del castellano, Bascuence y Latín* (1745) eta Frantses Iraultza baino hamarkada bat lehenago hil zen.

Axular Iparraldeko literatur korrontearen gurasotzat hartu izan den bitartean, Larramendiri ezagutu izan zaio Hegoaldekoaren aitatza; baina lehenak euskaraz zoragarriro idatziariko liburu bat plazaratu zuen bitartean, bigarrenak gaztelaniaz idazten ditu bere obrak eta arrotzek euskarari egiten ornen zizkieten irain eta laidoak garbitzen erretzen ditu indarrik hoberenak. J. M. Mokoroak bere garaian salatu zuenez, arrotzei gehiegi begiratzeko eta ohore-puntutan katramilatzeke zalekeria Larramendirengan hasten da nabarmentzen, eta horrela, Villasanten hitzak erabiliz mugaz honaindiko literaturan "bihurritze, errebelatze edo jatorrizko bekatu bat" sortzen da, berehalako ondorengoetan baino hurrenagokoetan areago sumatzen dena. Ondorengo belaunaldien hizkuntza baldintzapetuko duen purismoak A. Larramendirengan ditu erroak.

A. Larramendik gogor erasotzen die euskara aldrebeseko sermoiak botatzen dituztenei eta bestetik, esan bezala, apologeta-lana burutzen du kanpotarren aurrean euskararen bikaintasunaz goretsiz, horretarako berak ere aintzakotzat hartzen ez zituen hizperri edo neologismo barregarriak asmatzen bazituen ere.

Itzulpenari dagokionez, bere Diccionario Trilingüen badu bere ideien berri ematen duen pasarte bat<sup>7</sup>, eta bertan dio itzulpen egokiak egiteko sorburu-hizkuntza ezezik xede-hizkuntza ere ongi ezagutu behar dela, nahiz eta beti galdu egokitasuna eta eraginkortasuna testu itzuliak. Zenbait kasutan itzultzaileak itzulpen egokiaren (legítima traducción) legeak bete ordez gaztelaniaren doinu materiala (sonsonete) jarraitzen ornen dute hitzen kantitatean eta kalitatean baliokide puntualeriak bilatuz, ondorioz gaztelaniaz indarra duen esamoldea gordin eta ahul geratzen delarik, atzitik, zentzuari jaramon egin eta parafrasi bat burutuz grazia eta dotoretasun gehiagoko perpausak sor litezkeelarik. Ageri denez, XVII mendean nagusi zen pensamoldearen ildotik dabil andoaindarra.

Juan Antonio Mogel (1745-1788) Peru Abarka obra sonatuaren egileaz ere antzeko zerbait esan behar da itzulpenari dagokionez. Eibartarra Larramendiren jarraitzailea zen, baina burutu zituen itzulpenetan ez zuen laprastada puristik egin. Itzulpenari dagokionez aipagarria da bere Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos o Demostración práctica de la pureza, fecundidad y elocuencia del idioma Bascuence contra las preocupaciones de varios escritores extraños y contra algunos bascongados, que sólo tienen una noticia superficial del idioma patrio (1802) 31 orrialdetako liburuska honetan 23 itzulpenez hornituak datoz, eta sarreran egileak dioenez Humboldtten eskariz eginak dira euskarapenak. Gerora Bonaparte Printzea bezala oraingoan jakintsu alemaniarra izan zen itzulpen-sorta honen eragilea, beste behin agerian jarri itzulpena izan dela euskara beste hizkuntza eta herriekin homologatzeko ezinbesteko bitartekoa. Zizeron, Salustio, Tazito, Tito Livio eta Kurtzioren pasarteak gipuzkeraz emanak daude, eta gero Peru Abarkaren amaieran bizkaieraz emango dituenak berak dira.

Pascalén Gogamenak ere itzuli zituen, eta 1899an Azkuek EUSKALZALEn argitaratu zituen.

Peru Abarka, bere obra nagusiko elkarriketak direla-eta, Mogelek dio ez duela bere buroa gauza ikusten erdaratzeko. Idiotismoen ezberdintasuna, esamoldeen piperra, euskaldunen tresna bereziak, sinonimoen ugaritasunak eta beste zenbait gauzak ezin gaudituzko eragozpenak sortzen zizkiotela aitortzen du lehen argitalpenaren hitzaurrean. Gerora, lan hori Azkuek egingo zuen gaztelaniara eta Gregorio Arruek Gipuzkoako euskalkira, nahiz eta azken bihurpen honek 1948ko Boletín de Amigos del Paísen eman zen arte argirik ez ikusi.

Larramendiren antzera, J. A. Mogelek ere gogor ekin zien “erdera mordolloak” beren testuetan ezartzen eta “erderati euskerara biurtu gurean gauza garbirik egiten ez” dutenen kontra; eredutzat proposatzen dituen pasarte itzulietan joera integral samarra nabari zaio, osagai semantiko, estilistiko eta pragmatikoen oreka aski ongi lortuarekin. Erliziozko gaien artean Cris-tinauren jaquinvidea izeneko A. Asteteren katixima bat ere bizkaieratu zuen.

Bizenta Mogel, Juan Antonio Mogelen iloba eta Juan Joseren arrebak, osabarekin latina ikasteen ezagutu zituen Esoporen alegiak euskaratu zituen, Iturriagak Samaniegorenak eta Archuk La Fontainerenak bezala.

Pedro Antonio Añibarro (1748-1830) bizkaierazko prosalari behinetakoa den misiolari bil-larrotarrak erdaratik ez ezik lapurteratik ere bizkaieratu zituen zenbait obra, hala nola, A. Pala-

7.- Zabaleta, J. M. loc. cit., 47 or.



ciasen Lora-Sorta Espiritualaeta Axularren Geroko Gero. Juan Antonio Mogeekin batera bizkaiera literarioaren gurasotzat jotzen den honek alde nabarmena du euskalkia idazteari dagokionez. Lehenak Markina aldeko euskara bere fonetismo eta guzti proposatzen zuen biartean, Añibarro arratiarrak, Gipuzkoan bizi zen eta Euskal Herri osoari gehiago begiratzen zionak uste zuen ez zela hizkuntza idatzian onartu behar hedadura mugatuko berezitasunik.

Larramendiren irakatsiak hurbiletik jarraituz, eta zenbaitetan muturrerarino eramanez bere itzulpenak burutu zituztenen artean Juan Inazio Iztueta (1767-1845) aipatu behar da. Bizimodu gorabeheratsu samarra izan zuen zergabiltzaile eta gartzela-zuzendari izan zen zaldibitar honek Kontxesiri egindako poema sonatuaz eta beste zenbaitez gainera prosazko lanak ere utzi zizkigun: Guipuzcoako dantza gogoangarrien condaira edo historia; bertan darabilen euskara Larramendiren Diccionario Trilingüeren eraginez tratatu eta lotuegia ageri zaigu. Badira liburuan Jovellanosen herri-olgeta eta jostakizunen alde egindako defentsaren zenbait pasarte, gaztelaniaz eta euskaraz datozenak, baina Villasantek ongi dionez, “nekez ulertuko genituzke gaztelaniazko testua alboan izango ez bagenu”<sup>8</sup>, itzulpena morrontzapeko eta hitzez hitzekoa eta Larramendiren Hiztegiko hitzak erruz erabiliz egina baita. Itzulpena alde bate-ra utzi eta bere baitatik idazten duenean, askozaz euskara jariakorrago eta sen handiagokoa erabiltzen du, nahiz eta orduan ere Larramendilen neologismoak ez baztertu erabat.

Plauto Bascongado (1828) obran Fr. Bartolomek egin zion kritikari aurre eginez 43 orrialdetako liburuska bat idazten du Carta eguiten diona don Juan Ignacio Iztuetac apez don Juan José Mogueli izenburupean; testua gaztelaniaz eta euskaraz dator eta Iztuetak adiskide zuen Pascual Iturriagaren erdarazko testua dela uste da. Dena den, A. Zabala, Bonaparte Printzeak eta beronen lankide izan zen A. Uriartek ez zuten uste zaldibitarren euskara ona zenik, edo eredu garri behintzat eta horregatik euskalkiak alderatzeko itzulpen-lanak eskatzean Lardizabal eta Agirre hartu ziren jarraibidetzat, Iztuetaren euskaratik “luputik” bezala aldenuz.

Dagoeneko aipatua dugun Agustin Pascual de Iturriaga, Hernaiko gazteria hezitzen hainbeste lan egin zuen apaiza. Argitara eman zituen artean honako hauek daude: *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842). Urte honetan bertan *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado*, dialecto guipuzcoano, con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos argitaratu zuen eta berorrek eman zion osperik handiena; Samaniegoren berrogeitamabost alegia dira hitz neurtutan itzuliak, gainera Virgilio-oren lehen eta hirugarren egloga, San Inazio-oren martxa eta ezpata-dantza ere aldean dituela. Itzulpena jatorriasunez burutua eta euskal girora moldatua da. Obratxo hau 1884ean berriz argitaratu zen Tolosan euskarazko izenburuarekin: *Ipuiac* eta beste moldaera batzuec. Iturriagaren euskarak baditu lapurterazko hitzak, Iparraldeko literaturarekin izan zuen harremanaren lekuko direnak eta A. Zabala, Archu eta Goyhetche alegiariekin alderatuz gero bizitasun, dotorezia eta txairotasunez nagusi agertzen dela aitortu behar da.

Larramendiren eraginetik kanpo, Oteiza medikua, George Borrow misiolari anglikanoaren eskariz San Lukasen Ebanjelioa 1838an euskaratu zuena eta I. Lardizabal, Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira itzuli-moldatu zuena aipagarri dira, beste erlijio-testu ugari euskaratu zituen Pierre Nérée Dassancekin batera.

Europar barrena erromantizismoaren eragina hedatzen ari zen bitartean eta Schleiermacherrek Berlingo Zientzien Erret Akademian bere *Ueber die verschiedenen Methoden des*

8.- Villasante, L. loc. cit., 249 or.

Uebersezens<sup>9</sup> irakurri zuen urte berean jaio zen Ingalaterran Louis-Lucien Bonaparte, Waterlooko porrotaz geroztik bertan aurkitzen baitzen aita gatibu. Garai beretsuan ingeles batek baino gehiagok, hala nola: F. W. Newman, Carlyle, Morris eta abarrek ere alemaniar erroman-tikoen joera beretsua agertu zuten beren itzulpenetan Homeroren Odissea edota Virgilioren Eneida bezalako obra klasikoak ingeleseratzean. Matthew Arnoldek oraindik muturrerago eraman zuen joera literalista hori eta Homero ingelesezko hexametrotan ematen saiatu zen, jatorrizkoaren moldeari estuki loturik. English Revised Version deritzon Bibliaren itzulpenak ere bide beretik jo zutelarik.

Frantzian Leconte de Lisieren Iliade eta Mallarméek egindako Edgard A. Poeren zenbait poemaren itzulpenak dira joera beraren lekuko.

Jatorrizko testuaren nortasuna azpimarratu ezezik, zenbaitetan morroi gisa men egiten zion itzulpen-joera Europan zehar nagusitzen ari zen mendearen erdi aldera hiltzen dira euskal prosa landu zuten izen sonatuak: Astarloa, Agirre, Gerriko, Añibarro, Lizarraga, Mogel, Lardizabal eta abar; Euskal Herria nahikoa lur jota aurkitzen zen gerratean ondorioz eta euskararen aurkako eraso ere areagotuz zihoan, neurri batean euskaldunen beren eskariz. Egoera tamalgarri honi aurre egiteko A. D'Abbadiek 1853tik hasita euskal literatura zuzpertzeko erabakia hartzen du festak eta poesi lehiaketak antolatuz.

1856an Louis-Lucien Bonaparte Euskal Herrira iristen da eta D'Abbadieren lankidetzarekin euskalkiak aztertzeke eta mapa bat burutzeko talde bat antolatzen du. Konparaketa burutzeko metodologia euskalki ezberdinez testu bera itzultzea izan zen eta horretarako Intxauspe, kanonigo zuberotarra, Duvoisin, kapitain lapurtarra, J. A. Uriarte, frantziskotar bizkaitarra, Bruno Etchenique, nafarra, Klaudio Otaegi, gipuzkoarra eta abar bere baitan zituen euskalariz osaturiko ekipoa sortu zen. Itzultako testuen artean S. Mathiuren evangelioa, Iturriagaren Jolasac (zubereraz), Apokalipsia eta Kempisa daude.

Talde horretakoen artean, aipamen berezi merezi du Jean Duvoisin ainhoatarrak egin zituen itzulpen ugaritasunagatik ezezik jatorrizkoa eta itzulpeneko testuaren artean lortu zuen oreka eta egokitasunarengatik. Duvoisin da, zalantzarik gabe, mende honetako itzultzailerik distiratsuenak. Bible edo Testament zahar eta berria. Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatetik Lehembiziko aldizko Laphurdiko eskarara itzulia. Luis Luziano Bonaparte Printzeak argitara emana (1859), euskaraz egin den lehen bertsio osoaz (1865) gainera Telemaken abenturak, Iturriagaren Jolasac, Jesu Kristoren Imitazioea (Haristoyk amaitu eta argitaratua), Fenelonon Fableac, Don Quijoteren pasarte bat eta abar itzuli zituen.

Halaber, Bonaparte Printzearen lankide izan zen Jean B. Archu zuberotarra ere aipagarria da frantsesetik euskarara ezezik, euskaratik frantsesera ere burutu zituen itzulpen ugarirengatik, besteak beste, honako titulu hauek nabarmentzen dira: Poésies basques de Bernard Dechepare (1847), Proverbes basques récueillies par Arnald Oihenart (1847), La Fontaineren Aleghia berheziak (1848), Uskara eta franzes gramatika (1852), Kantu patriotikak (1848), Ruthen libria, Salomounen kantiken kantika, Jonasen libria (1888) eta abar. Itzulpen gehienak baliokidetzaz zehatzez burutuak dira, helburu didaktikoa dutenak batipat.

## Foruen galera eta Itxarkundia

1876an Hego Euskal Herrian foruak erabat galtzean, erreakzioz euskararen eta euskal kulturaren aldeko lantaldeak sortzen dira lau probintzietan, A. Kanpion, R. M. Azkue, Julio de Urkixo eta abar bezalako gidari eta bultzalarien babespean.

9.- Schleiernmacher, F. (1813): *Ueber die verschiedenen Methoden des Uebersezens*, in Störig, 1969, 38-70 or. Bada frantsesko itzulpena jatorrizko testua parez pare duena: Berman, A. eta al. (1985): *Les tours de Babel*, Editions TER, Mauvezin, 279-347 or.

Ipar Euskal Herrian, berriz, Frantziako III Errepublika nagusitzean Elizak bere burua babesteari ekiten dio eta erlijio-gaiak ezezik, politikazkoak ere lantzeari ekiten dio, ondorengo zenbait titulu itzultzen ikusten denez; Diharassarryk Aphezen dretchoac eta eginbideac eleztionetan (1890) obra itzultzen du, Elissanburuk Zer izan diren eta zer diren oraino fra-mazonak munduan (1890) eta Framazonak (1891) eta Hegoaldean itzultzen diren Sardá i Salvanyen Liberalen dotrina pecatu da (1887) eta Liberalqueriya pecatu da (1896) ditugu katolikoen erreakzio horren lekuko.

Generoei dagokienez narratiba, saiakera eta antzertian eremu berriak irekitzen zaizkio euskarari eta lehendabiziko aldiz hitz egin daiteke euskal literaturaz *sensu stricto*, liburu eta aldizkariaren kopurua ere ugaltzen hasten delarik. Bai sorkuntzan eta bai itzulpenetan erabiltzen den euskara-ereduari bagagozkio, hiru joera nabarmentzen direla esan daiteke:

a) Populista edo herrikoia dei litekeena, eta Larramendi, Iztueta, Iturriaga eta abar bezalako en maisutza aitortuz Arrue, Antia, Arana, Manterola, Baroja, Soroa eta abar luze samar osatzen duten idazle eta euskaratzaile garrantzitsuen multzoa. Piskanaka nagusituko zen joera garbizalearen eraginpean gerora baztertuxerik gelditu ziren eta inoiz ez zaie behar adina aitortu eta ezagutu aho-hizkuntza literatur prosaren mailara jaso izanaren meritua.

b) Azkue eta berorren jarraitzaileena: Aurreko joerakoak baino askoz puristago ageri dira joskera eta hiztegiari dagokienez. Azkuek bere garaiko zenbait dotrina-euskaratzailearen kontra gogor ekiten dio, lehenago Larramendi, Mogel eta abarrek urraturiko bidetik eta bere Hiztegiaren sarreran L. L. Bonaparte printzeak argitara emandako P. Asteteren Katiximaren hiru itzulpenetatik jasotako pasarte bat eskaini ondoren, honako hau esatera iristen da: *“¿Para qué la traducción si ello es traducción en si mismo? Para este género de versiones no parece demasiado duro aquel proverbio italiano: “Traduttore, traditore”: Es de advertir que tanto los siete pecados capitales como sus virtudes contrarias tienen cada cual su nombre castizo, no inventado por neologistas. Ignoro el fin que se propuso el benemérito príncipe al publicar estas cosas”*<sup>10</sup>.

c) Aranatiar puristena. Mendearen hasierarekin nabarmendu eta itzulpenetan mamitu zen ia bakarrik. Itxuraz erdararekin inolako zerikusirik gabeko euskara “garbia” zirudien euskara honen bidez buruturiko itzulpenak erabat joera formalista baten barruan kokatzen dira, aurreko bi korronteetakoak baino itzulpen hitzez hitzekoagoak egiten dituztelarik. Testuen alderdi estilistiko-pragmatikoak oso arazotsuak gertatzen dira hain artifiziala eta ulergaitza zen euskara hartan. Hala ere, guztiek ez dute berdin jokatzeko joera honen barruan ere eta Zabala-Arana, Arriandiaga eta abar bezalakoak purismo askoz neologizaleago baten bidetik doazen bitartean, E. Olabide eta beste zenbait arkaismoak zuzpertzten eta premia berrietara egokitzen areago saiatzen dira.

Joera populistaren barnean, itzultzailearik garrantzitsuena eta emankorra Gregorio de Arrue, jaiotzez hernaniarra baina bizitzaz zarautzarra izan zena. Nobizio frantziskotar izan eta osasun makalekoa zelako irten, maisu bihurtu eta lanbide horretan ari izan zen idazle honek ospe handia bereganatu zuen euskarazko prosalari gisa, Bonapartek eta Van Eysek bere lan-kideen artean hartzeraino. Azkue bera ere baliatu zen Arruek Larramendiren hiztegiari ertzean ezarritako oharrez berea egiterakoan.

Gregorio Arrue (Arruabarrena)k buruturiko itzulpenen zerranda luzea izan zen eta obra gehienak bere bizialdia argitaratu ziren. Hona hemen euskaraturiko obra batzuen izenburuak:

10.- Azkue, R. M. (1905). *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao, XVI or.

Aita San Ignacio Loyolaco gloriosoaren bizitza (1881), Bravanteko Genovevaren bizitz arrigarri miragarria, C. Schmidtena, Arrueren itzulpenik sonatuena (1885), *Meditaciones*, Villacastinena (1880), *Glorias de Maria*, San Alfonso Maria de Ligoriena (1881), *Sobre la Comuni3n Frecuente*, *Segur monseinoarena* (1883), *Salvacioco aingura*, A. Jose Machena (1883), *Pi3nsalo bien o Modo f3cil de salvarse* (1884), *Escala para subir al Cielo* (1886), *Kempis* (1887), *Mes de Mayo* (1888), *San Roke*, *San Jose*, *Sortez Garbia*, *Karmen-go Amari eta abarri egindako bederatziruurenak eta abar*.

Mogelen Peru Abarka ere gipuzkeratu zuen baina Euskalerrriaren Adiskideek beren Boletinean plazaratu arte ez zuen argirik ikusi.

Gregorio Arruerekin batera, garaiko itzultzaileek emankorrenetakoa izan zen Manuel Antonio Antia (1830-1893) urretxuarra ere aipatu beharrekoa da; aldizkari askotan bere lanak argitara emateaz gainera, Lore Jokoen eragileetako bat izan zen eta burutu zituen euskarapenen artean honako hauek dira azpimarragarri: *Ama Virginia Arantzazucoaren imagin eta eleizaren condaira laburra* (1881), *Ceruraco bide zuzena eta segurua* (1867), *Cristaua elizan* (1878), *Jesusen biotz sagraduco deboziozco liburucha*; *Karmeldar debotoarentzat icasbidea* (1883), *San Franzisko Asiskoaren bizitza* (argitara gabea).

Garai beretsuan, Jos3 Ignacio de Arana, jesuita azkoitiarraren itzulpenek ere argia ikusi zuten eta zerabiltzen gipuzkera jatorrarentatik aipagarri gertatzen dira, nahiz eta jatorri larramenditarreko hizperri batzuen desegokitasuna gorabehera. Bi obra itzuli dira aipagarrienak: *San Ignacio Loyolakoaren bizitza laburtua euskaraz eta gaztelaniaz* (1872). Euskarazko eta gaztelaniazko testua parez pare datoz, nahiz eta lehena erdarazkoaren aldean zerbait luzeagoa, parafrastikoagoa gertatzen den.

1888an Bai, pecatu da liberalqueriya argitara eman zuen Baionan eta agi denez Sard3 y Salvanyen, *El Liberalismo es pecado obraren atal baten euskarapena* da. Obra honen itzulpen osoa Bartzelonan argitaratu zen 1887an *Liberalen dotri3na* pecatu da titulupean, itzultzailearen izenik gabe, baina badirudi J. M. Echeverria kanonigo zegamatarak burutua dela. 1897an obra beraren argitalpen berri eta eskerga bat egin zen Sard3 eta Salvanyen saikera zortzi hizkuntzaz zekarrena: gaztelania, kataluniera, euskara, portugesez, latin, frantsesez, italiara eta alemanieraz.

Azkenik, Luis Iza Agirre (1837-1892) bilbotarrak buruturiko Calder3n de la Barcaren *Zalameako Alkatia* (1881) obraren, Marzelino Soroak (1848-1902) egindako Jos3 Col3s y Gotiren *Euskal-naparren Joaera edo Emigrazioa* (1885) eta Itziar eta Debako mediku ziren Martin Aranburu eta Manuel Bago Agirrek euskaraturiko *Errico Gendeentzat Osasun Legeak eta Medicantzako Arguibideak* (1899) ere kontutan artzekoak dira, aipatzen ari garen korronte populistaren barruan.

Joera honetako azken itzultzaileetako bat Pedro Miguel Urruzuno (1844-1923) elgoibartarra izan zen. Hil eta zazpi urtera argitaratu ziren bere ipuiak (1930), kazetari bezala aldizkari askotan burutu zuen lan berreiatuaren bilduma. Editoreak aurea hartzen die garbizaleen aldetik etor zekizkiokeen kritikei neologismorik gabe idatzirik dagoelako eta euskaldunen irakurzaletasuna zuzpertzeko liburu errazak behar izatea jartzen du Urruzuno argitara ematearen zuri bidetzat.

Itzultzaile gisa Cohenen Meza Santuazer dan (1915) argitaratu zuen gipuzkeraz eta bertan indartzen ari zen euskara garbizalearen aurrean euskaratzaileak sentitzen duen konplexua aitortzen du, baina euskararik garbiena baino nahiago duela ahalik eta euskaldun gehienek ulertzeko modukoa dio, testu itzuliak izan behar duen zentzu pragmatiko hoberearen ildotik.

Seigarren argitalpena izatera iritsi zen bigarren liburuak honako izenburua du: Anima ondo damutua eternidadeko gauzak kon sideratzen. “Zeruko argiya” edo “¡Ondo Pentsatu! berriya. Aita Baudranec atera zuanetic Urruzunoco D. Miguel Apaizac euzquerara itzuliya (1921). Harrigarri samarra gertatzen da nola urte beretsuetan hain euskara-eredu ezberdinez idatziriko testuak itzultzen ari ziren Eleizalde, Arriandiaga, Zabala-Arana, Joseba Altuna eta beste zenbait.

Bigarren itzulpen-joeraren sortzaile izan zen Resurrección María Azkue, lekeitiarra, bi mendeen artean zangalatraka ageri bazaigu ere, XX mendean eragina izan duen hizkuntzalari eta itzultzaile gisa aurkeztu behar da. Hala ere, 1900 urteaz aurretik argitaratu zituen zenbait itzulpen lan EUSKALZALE aldizkarian eta horietako batzuk euskara hutsez ematea debekatu zitolarik, erdaraz ere eman beharrean aurkitu zen, besteak beste, Staehlinen Peter Andriaren latorrizko Gertaerak, ingelesetik bizkaierara itzuliak. Azkuek gaztelaniara itzultako liburuen artean ezin ahaztuzkoa da Mogelen Peru Abarcarena, lehen aldiz 1899an argia ikusi zuena.

Azkenik euskaratik gaztelaniara itzultakoeren artean Euskalerrriaren Yakintza (1935, 1942, 1945, 1947) lau tomoak aipatu behar dira; beraietan ohiturak, sineskeriak, ipuin, elezahar eta euskal herri-jakintzaren hainbat altxor bildu eta eskaini zituen.

Azkue Arana eta aranatiarren aurkako joera baten buru bezala agertzen bada ere, Nikolas Ormaetxea “Orixe”k aitortzen zuenez, eta egiazko eta benetako euskararen oinarrietan hizkuntza finkatu eta errotu beharra sentitu bazuen ere (bere bilketa-lan eskerga da esaten dugunaren lekuko), herriaren ahotik jasotzen duen euskarari bere galbahe edo iragazkia ezartzen dio joskera eta hiztegiari dagokienean berezko freskura eta indarra lausotuz. Dodgsonek “azkuence” deitzen zion “gipuzkera osotuaren” proposatzailearen euskara-motari. Dena den, ondoren aztertuko dugun aranatiarrek erabiltzen zuten euskara-eredua oraindik askoz apriorizko eta kabalistikoagoa gertatzen zen, Azkuek proposatzen zuenaren aldean.

Hirugarren korronteak, populistena eta Azkuerena baino askozaz muturreratuagoa izan zenak Sabino Arana-Goiri izan zuen eragile eta bultzalari. Larramendik bere garaian bezala, Arana-Goirik berak ere ez zuen euskarazko testu ugari utzi, baina idazle eta itzultzaileen baitan eragin nabaria izan zuen BIZKAITARRA egunkaria eta EUZKADI aldizkaria, Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino (1896) eta abar bezalako argitalpenen bidez. Adibidez, aipaturiko aldizkarian ageri den “Análisis y reforma del *Pater Noster* del euzkera usual” artikulua eredu bihurtu zen aditz, joskera, hiztegi eta abarrean egin behar zen eraberrikuntzarena eta eragin horren fruituak ikusteko aski da Arriandiaga, Elizalde eta abarren lanak irakurtzea. Euskara purista horren ideal nagusia hizkuntza erdaratik zetorren inolako eragin edo kutsurik gabe gordetzea zen, horretarako aspaldi euskarak mailegatu eta mendez mende erabilitako erdal jatorriko hitzak, *eliza*, *aingeru*, *zeru*, *diru* eta abar bezalako hitzak baztertu behar baziren ere.

Errotiko eraberrikuntza honen aurrean kontrapisu egin nahian autore klasikoan, literatur historiaren eta herri-hizketaren ezagueran oinarrituriko prosa bat kontrajartzen dute Azkue, Urkixo, Kanpion, Altube, Domingo Agirre, Orixe eta abar luze batek. Baina aranatiarren ereduak bere osotasunean bizitza luzeegirik izan ez bazuen ere, ondorengo belaunaldietan purismoaren eragina luzatuz joan zen, bai hiztegiari zegokionez, eta bai joskerari ere (Altuberen planteiamenduen indarrez) eta urte luzeetan bide edo zidor estuetatik ibiltzera behartu ditu idazleak eta itzultzaileak.

Aipatu dugun joeraren barruan Aita Arriandiaga, elantxobetarra, eta Zabala-Arana, nabarniztarra, biak fraide klaretiarrek, gailentzen dira: lehenak 1959 arte argia ikusi ez zuen Goizparraik eta Beldubaik Egiña, ebanjelioen eta Apostoluen Eginak Itun Berriko testuak euskaratu zituen.

Bigarrenak, Edesti Deuna. Ume ikaslariyentzat (1921); Euzko Lutelesti txikia (1922) eta beste zenbait ikasliburu (Daneurtiztia, Zenbakiztiya), Aste Gurena euskeraz eta late-raz (1924), Josutxu. Umientzako otoitz-idaztiñua (1931); Donokirako Bide Zuzena (1935). Obra guzti hauek joera arantiar muturreratuenaz idatzirik daude, tildez, hizperriz eta ohizko euskararen aldakuntza bortxatuz josiak eta itzulpenen pragmatikotasuna ezin onartuzko mugetaraino eramaten du. Aditzaren eraberikuntzaz ere argitara eman zuen testuak: La Conjugación en el Euzkera Bizkaino. Dos estudios sobre la conjugación bizkaina en su forma actual y según una posible reforma (1919) nahikoa garbi erakusten du apriorismoa eta subjektibismoaren zidor labainean behera hasiz gero zeinen urruneraino eta proposamen zentzugabeak egiteraino irits daitekeen.

Juan Eguzkitza Meabe (1875-1939), apaiz lemoatarrak garai hartako aldizkari gehiengan datzi zuen eta itzulpenen artean Garbitokiko arimaen illa (1915), Sardá y Salvanyen obra, Andra Mariaren Loretako illa (1919) eta Francisco Baizolaren Argi Donea (1933) argitaratu zituen. Gizarte-Auzia. Ugazaba ta langille arteko gora-berak (1935) artikulu-bilduma ere hein handia batean itzulpentzat jo daiteke. Eguzkitzaren prosa argia eta didaktikoa den arren, ahalegin handiegia egiten du inolako mailegurik ez hartzen eta inguruko hizkuntzen artean ondare amankomuntzat jotzen diren hitzak, sozialismo, komunismo eta abar bezalakoak ere adierazteko hizperri irenkaiztzak sortzen ditu. Beste zenbait idazle adinako joerarik ez badu ere hizperrigintza arantiarerako, hala ere testu zurrin eta nekagarriak idazten ditu.

Raimundo Olabide Carrera, j.s. (1869-1942) gasteiztarra garai eta joera puristaren barneko itzultzaile garrantzitsuenekotzat jo behar da. Bere obren artean Loyola-tar Eneko Deunaren Gogo-Iñarkunak (1914), Giza-soña (1917) giza gorputzari buruzko hitz eta esamolde bilduma; Josu-Kistoren Antzibidea (1920); Itun Berria (1931); Itun Zar eta Berria (1958) A. Frantzisko Etxeberriaren gidaritzapean argitara emandako Biblia osoa.

Olabideren euskara garbizalea bada ere, normalean ez du hizperri arantiarrek erabiltzera jotzen. Erabiltzen dituen hitz gehienak usadiozkoa dira, Azkueren hiztegitik jasoak, baina askotan esanahi ilunekoak eta literatur tradizioz gabeak dira, erdal usaineko beste batzuen orde ezartzen dituenak. Bestalde, Elizalde bezala, aditz trinko edo sintetikoak erabiltzearen aldeko joera handia du, inoiz sortu izan ez diren adizkiak dedukzioz asmatu eta erabiltzeraino. Perpausak laburbilduak, trinkotuak dira eta pragmatikaren ikuspuntutik deskodetzeko zailtasun nabaria dutenak, nahiz eta indartsuak izan erredundantzia gutxikoak direlako.

Zalantzarik gabe, Olabideren itzulpen-lan nagusia Biblia izan zen eta bere garaian Mitxelena jaunak balorazio orekatua egin zion<sup>11</sup>. Aurretik dauden beste bertsiotzuekin alderatuz gero, Olabidek erabat bere gisako laborategi-euskara bat erabiliz burutu zuela itzulpena ikusten da. Ordurako normala zen baino askoz kopuru handiagoetan nahasten ditu euskalki guztietako hitzak, nahiz eta oinarria fonetikaz, morfologiaz eta aditzez gipuzkera izan. Olabideren itzulpenaren alde onak azpimarratzekoan zehaztasuna eta arreta aipatu behar dira, eta txarrak esatekoan naturalatasunik eza eta euskalkien arteko batasuna etorkizunera proiektatuz egin nahia, iragana kontutan hartu ordez.

Azkenik, Olabideren merituen artean, ondorengo hiru idazle sonaturen maisu izanarena dago: "Orixé", Andima Ibinagabeitia eta Zaitegirena, izan ere, jesuiten artean ikasketak burutu zituzten hirurak neurri handian bait zaizkio zordun, nahiz eta gero bakoitzak bere bide berezia aurkitu eta jarraitu.

Aipatu ditugun hiru korronte edo joera hauek XIX mendearen azken aldetik hasi eta XXaren lehen herenean garatzen dira nagusienik, nahiz eta Azkue, Olabide eta beste zenbait

11.- EGAN (1959), 85-94 or.

itzultzaile gerra ondoren ere zenbait urtez bizi izan. Hala ere, 36ko gerrateak sortu zuen etena gertatzerako joera populista ia indarrik gabe zegoen, eta purista aranatiarrenak ere gero eta eragin mugatuagoa zuen bere erarik radikalenean, ondorioz Azkue eta Olabideren itzalpeko joera garbizale arkaizantean idazle eta itzultzaile belaunaldi jarri bat sortzen da erabilitako baliabideei dagokienez erabateko homogenotasunik ez duen arren itzulpenaren bidez euskara aberastea eta edozertarako gaitzea helburu duena; horregatik sarritan sorkuntzaren eta itzulpenaren jomugak ez ziren gehiegi berezten eta Orixerena bezala baliokidetzatza dinamikora nabarmen isuritako joera nagusi zelarik, gama oso baten barruan kokatu behar dira itzultzaileen testuak Zaitegi, Larrakoetxea, Garro, Altuna eta abar bezalako baliokidetzatza literalago eta pragmatika zaileko testuetaraino, S. Onaindia, G. Barandiaran, A. Ibinagabeitia eta abar bezalakoak tartean ezarriz, beti ere "gipuzkera osotua" gailen delarik, baina bizkaiera ere baztertu gabe.

### Hizkuntz eta itzulpen-ereduaren bila

XX mendea errotiko aldaketen lekuko izan bada itzulpen-printzipioei dagokienez, alor horretan izan diren gertakari berrien eraginez eta bereziki komunikazioari buruzko kontzientzia berri bat hartu delarik, semantikariak eta psikologoak ez ezik, publizitari eta politikariak ere atergabe gogorarazi dute komunikatzen ez duen mezuak ez duela inolako baliorik, ondorioz itzultzaileek eta argitaratzaileek berek ere bezero edo mezu-hartzailearekiko komunikazio-kontaktua izateari gero eta garrantzi handiagoa emanez.

Euskarari dagokionean XX mendeko lehen hiru hamarkadetakoa idazle eta itzultzaileen artean parez pare gertatzen dira gai berri eta konplexuagoak adierazteko euskara-eredu egoki bat eta itzulpen-eredu bat bilatu beharra. Hizkuntzaren balio enblemakoari beronen komunikagarritasunari baino sarritan garrantzi handiagoa ematen zitzaizlarik itzulpen orok kontuan hartu beharreko alderdi estilistiko eta pragmatikoak galduan ateratzen ziren; beste batzutan euskararen "goxoaren" eta "jatorraren" izenean alderdi semantikoa lepo egiten zen, zeuden aurretiz eta hesi ideologikoengatik sintesi orekatu bat lortzea ia ezinezkoa gertatzen zelarik. Gerra aurretikoan plazaratzen hasi eta gerra ondoko etenaldiaren ondoren ere bere lanak argitaratzen jarraitu zuen belaunaldiak (zenbaitek katakunbetakoa deitua) erronka honi erantzun nahi izan zion bide eta modu ezberdinez, baina literatura unibertsaleko obrarik umoenak euskaratzeak gure hizkuntzaren etorkizunerako zuen garrantziaz jabeturik beti.

Hala ere, belaunaldi honen baitan ageri ziren kontraesanak gainditu eta itzulpengintza moderno baten eredu integralerako oinarriak 70. hamarkadan ezarriko dira, 80. hamarkadan gababetera iristen direlarik.

Aurreko hiruzpalau hamarkadetan ia beti estuki elkarri loturik garatuz joan ziren euskara eta itzulpen-ereduei bagagozkie Nikolas Ormaetxea "Orixe" (1888-1961) aipatu behar da erreferentzigune nagusitzat. Bere garaikideek itzultzaile gisa zioten miresmena eta aitortzen zioten maisutasuna denbora igaro ahala dagokion neurri historikora mugaturik geratu dira, eta gaur egun, bere merituak onartzeko eragozpenik ez dugun heinean, garaikideek hainbeste miresten zituzten itzulpenak arazotsuago eta mugatuago ageri zaizkigu gure artean ere itzulpen-eredu integral edo egokia nagusitzen ari delarik. Orixe hil eta handik lau urtetara, garaikidea zuen A. Ibinagabeitiak Orixeren itzulpengintzaren aurrean ageri zuen miresmen erabateko eta ia kritikarik gabeak<sup>12</sup> astindu gogorra hartuko du handik hamar bat urte geroago J. Azurmendiren Zer dugu Orixeren kontra (1976) saiakeran: "Orixeren handitasuna batez ere itzulpe-

12.- Batzuk (1965): *Orixen-omenaldi*, Donostia, 87-117 or.

netan agertu ohi da (hizkuntzaren jabetasun kontuan, alegia). Orixe, ordea, itzulpenetan ere literato gisa ibili zaigu, itzultzekoa birkreatuz, eta kreaziorako beharrezkoak uste zituen arauen eran —eusko eran— kreatuz hain zuzen. Itzultzaile onak hori egin behar ornen du “Eta aurre-rago”: Orixeek giza eskubideen deklarazioa itzuli zuen, betiko bere eran itzuli, sail honetako hizkerak bestelakoa izan behar zuenaz ohartu gabe ausaz beste lege batzuk gobernatzeko dutenaz, hizkera honek hitzen balioa neurtzeko bere neurriak dituenaz (arbitrarioak, nahi bada; ez hizkuntzaren “berezkoak”, behintzat). Daukaguna Orixeren deklarazio bat da, ez ONUrenik<sup>13</sup>. J. Azurmendiren kritika-iruzkin honetan nahikoa garbi ageri da Orixeren itzulpengintzak, oro har, zeukan muga eta testu faktual, pragmatiko edo ez-literarioak euskaratzeko orduan nondik herren egiten zuen.

Bestalde SENEZ aldizkarian (2. zenbakia) “Orixeren itsu-mutila” izenburupean Pedro Iturriozek gaztelaniazko klasiko horren euskarapenari egiten dion kritikan, garai hartan aski onartua zen itzultzailearen joera moralizatzailea ere aipatzen du eta testu literarioa bere iritzi pertsonak eta hautazkoen arabera aldatuz itzultzeko joera ere. Eta azkenik honela laburbiltzen du Orixeek itzulpenaz erakusten zuen pentsamoldea: “Idazlan guztiek, Orixeren printzipioz, ulergarriak izan behar dute, edozeinek ulertzekoak eta horretarako sarritan gehiegi erraztera daralma, beste batzuetan egokitzea; baina horrela (jatorrizko) testua gaizki ulertzeko arriskuan jartzen du irakurlea, ez baititu gauzak zehatz esaten eta interpretazio gehiagora bultzatzen du. Orixe-erentzat, euskarak dohain bereziak zituen eta ez zuen hizkuntza teknikoaren eta arruntaren arteko diferentziarik ikusten edo gutxienez edozein etxekoandre edo artzaik ulertzekoa egin zitekeela usten zuen” (112-113 or.).

Orixeek idatzi eta itzultitako guztiaren erreferentzia nahi duenak lehen aipaturiko “Orixe-omenaldi”<sup>14</sup> obrara jotzea aski du. Guk hemen bere obrarik nagusienak aipatuko ditugu: Tormes-ko Itxu-mutila (1929), Mireio (1930), Gizonaren eskubidegaien aitorkizuna (1949), Urte guziko meza-bezperak (1950), Agustín Gurenaren Aitorkizunak (1956), eta Itun Berría eta Salmuak.

Bizkaierari dagokionez, B. M. Garro, “Otxolua”ren Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak (1932) aipatu behar dira, Jean Barbierreri ipuinak lapurteratik bere euskalkira eta Euskal Erriko Abere eta Piztiak, gaztelania eta ingelesetik moldatu eta euskaratu eta Gomá kardinalaren Ebangelio komunztatuen itzulpen bat ere burutu zituen.

Giulio Cesare della Croceren obraren itzulpenean bizkaieraren ezaguera sakona erakusten du, bai aditza, esamolde eta hiztegiari dagokionez, baina aranisten ildotik sorturiko hizperriak (terminachos), arkaismoak eta euskalki zokoenetatik jasotako hitz ezezagunak ere erabiltzen ditu bere prosari halako kolore nabar eta irenskaitz samarra emanez. Bestalde bizkaierazko prosa hori “eufoniaz” hornitu nahi izanak ere zaildu egiten du irakurketa, nahiz eta garai hartako moda bat izan joera hori, eta itzultzaileak berak aitortu geroago beste era batera aurkeztuko zukeela. Ez da ahaztu behar obra hau moldatua dela, hots, ez dela jatorrizkoa bere osotasunean eta zenbait puntutan garaiko eskrupulu moralisten eraginpean “leundua” izan zela. Bada gerora egindako euskarapen oso bat euskara batuz. Otxolua itzultzeko erak garai berekoa zen Olabiderena gogorarazten digu alderdi pragmatikoan ageri dizkigun zailtasunengatik.

13.- Azurmendi, J. (1976): *Zer dugu Orixeren kontra*, Oñati, 145 or.

14.- Batzuk, *Orixe-omenaldi*, 71-85 or.



Gerra ondoko bi hamarkadetan literatur itzulpenak burutzeko joera nabari da zenbait idazle-itzultzaileengan: hala nola, J. Zaitetik Longfellowren Ebangeline (1945) eta Sopokelen Antzerkiak (1946) euskaratzen ditu jatorrizko hizkuntzetatik; B. Ametzagak Juan Ramón Jiménez-en Platero obratik zenbait kapitulu: Platero eta biok (1953); B. Larrakoetxeak Shakespearearen dramaturgia osoa itzultzeari ekiten dio 50. hamarkadaren erdi aldera nahiz eta 70. erdi aldera arte argirik ez ikusi, Euzko Gogoan agertu ziren obraren batzuk izan ezik (Macbeth, 1957). Ibinagabeitia eta Onaindia itzultzaileek Bergiliren Idazlanak osorik (1966) ematen dituzte argitara.

40. hamarkadatik hasi eta 70. hamarkadaren hasiera aldera arte doazen 25 urteetan itzulpen-gintzaren prozesua nahasi samarra gertatzen da lanen burutzapena eta argitarapena sarritan aski aldenduak gertatzen direlako batetik, eta joera ezberdinenak elkarren ondoan bizikide direlako, bestetik. Adibidez, 1968an Krutwigek Mao Tse-Tungen Liberalkeria aitzia (1968) argitaratzen duelarik, hurrengo urtean Orixeren Giza - Eskubidegai guzien aitorkizuna (1969) azaltzen da, N. Etxanizek eta J. Goikoetxeak entziklopediak argitaratzen dituztelarik edo Xabier Kintanak Kafkaren Itxuraldaketa (1970). Bestalde ez da ahaztu behar, gerra ondoan berriro indarraldi bat ezagutzen duela erlijio-liburuak batez ere lehen urteetan eta “eliz euskarak” dotrinaren irakaskuntzan eta liturgi erabilkizunetan baliarazteko liburu ugari plazaratzen dituela bizkaiera eta gipuzkera baturanzko batean oreka bilatuz; zenbait Itun Berri (Olabide, Kere-xeta, Zugastieta, Orixe), Meza-liburu (Léon, Orixe, Zarate) eta Kristau ikasbideak dira esanaren lekuko.

Euskaratik gaztelaniara buruturiko itzulpenen artean aipagarria da I. Goikoetxearen La Flor del Pirineo, Auñamendiko Lorea obraren itzulpena. 1962an B. Gandiagaren Elorri poema euskaraz eta gaztelaniaz agertzen da, nahiz eta erdarapena “gobernari-aginduz” egindakoa izan eta bi urte geroago, 1964ean, G. Arestik Harri eta Herri ateratzean bide beretik jotzen du, baita L. M. Muxikak Urdin eta Burnirekin eta J. Arozamenak Ene ixil-oiuak obrarekin ere.

J. A. Etxebarria nabarmentzen da Fedro, Martial, Esopo eta abar bezalako idazle klasi-koen obrak euskaratzen eta estatu barruko hizkuntzetatik itzulpenak burutzen J. S. Martin (Espriu), Aresti (Portela, Meabe), K. Jauregi (Cela), G. Aresti berak eskaintzen du turkiar poeta sonatuaren Lau Gartzelak obraren itzulpen bikain bat.

70. hamarkadari dagokionez mundu-mailan kalitate frogatua duten literatur obrak itzul-tzen direla aitortu behar da, nahiz eta itzulpenak burutzean erabilitako irizpideak aski ezberdi-nak izan; horrela euskara batuz eta ikuspegi gero eta integralagoz buruturiko Kafkaren itxuraldaketa (Kintana), A. Huxleyren Bai Mundu Berria (Amuriza) itzuli-moldatua, Voltaire-ren Kandido (Sarasola), eta abar bezelakoan alboan Shakespearearen Antzerkiak (Larrakoet-xea), Platonen Elkarrizketak (Zaitegi) eta Cervantesen Kijote Mantxa'ko (Berrondo) bezalako bizkaiera eta gipuzkera osotuzkoak, puristagoak eta pragmatikoki ulergaitzagoak ageri dira, gerra inguruko prosagintzaren irizpideetan oinarrituak.

Gazteek sorturiko editorial-etxe berrietako sorkuntzak (Lur, Kriseilu, Irakur sail) eta ikas-tolen inguruan finkatzen ari zen ikasliburu eta irakurgaien eskariak lagunduko du piskanaka hizkuntz eredua bateratzen, 1968an Arantzazun egindako bilera oinarri-ekarlearen ondoren.

Itzultzeko joera iraunkor bat ageri ez badu ere, Orixeren itzulpengintza, oro har, E. Nida-ren terminologia erabiliz “baliokidetzatza dinamikoan”<sup>15</sup> sartzen da bete-betea, eta zenbaite-tan “les belles infidèles” aroa gogorarazten diguten zentzuzko euskarapenak ere burutzen ditu

15.- Nida, E. A. (1964): *Toward a science of translating*, Leiden, 21-22 or.

sarritan. Beste herrialde batzuetan, Frantzia, Errusia eta abarretan esaterako, hizkuntza sendatzen eta nagusitzen ari zen garaian burutu izan zen itzulpen-mota hori Frantzia Leconte de Lisle eta de Littreren eraginez, Alemanian Goethe, Schlegel, Schleiermacher, Ingalaterran Postheid, Polak, Errusia Puskin, Gogol, Tretjakovski, Belinskij, Turgenev, Txekhov eta abarren bitartez gainditu zen, aire erromantikoen hegaletan.

Zentzuko itzulpena gaindituz ondotik etorri zen joera "egokia" hasieran literatur obrei buruzko izan bada ere, ikuspuntu hori sakonduz eta zehaztuz joan da testu zientifiko, tekniko, faktualak gero eta gehiago itzuli behar izan diren heinean eta hain zuzen ere, horixe izan da XX mendeak, bereziki bigarren erdi aldetik aurrera ugaltzen ikusi duen eskaria, munduak II Mundu Gerrateaz geroztik bizi izan duen alor guztietako planetarizazioaren ondorioz.

Bestalde, Saussure, Hjelmslev, Trubeckoj eta abarren bitartez hizkuntzalaritza estrukturalaren hedatze bizkorra, hizkuntzalaritza horren metodoak Bibliaren itzulpengintzari aplikatzea, UNESCOk mundu mailako itzulpengintzari eman dion babesa eta BABEL aldizkariaren sorrera, makinabidezko itzulpengintzaren ikerketa eta Itzultzaile-Eskolen ugalketa ere faktore garrantzizkoak izan dira amaitzera doan mende honetako itzulpen-teoria eta praktikari dagokionez.

XX mendeko euskal itzulpengintzari dagokionez, Ibon Sarasolak eskaintzen dizkigun datuen arabera<sup>16</sup>, gerraurreko 1934-35 urtean guztira 19 obra argitaratu ziren euskaraz: 4 berargitaratuak eta 4 itzuliak izaki, jatorrizko sorkuntza % 57,9koa izan zelarik, hau da, aurreko mendeetako baino zertxobaiot handiagoa.

Hogeita hamar urte geroago, 1962-63ko epean 42 titulu aurkitzen dira, berorietarik 26 urte berean sortuak eta 19 jatorrizkoak direlarik, itzulpenari murrizte-joera nabari zaiolarik.

Hamar urte geroago, 1972-73an agertzen diren 101 tituluetatik 96 urte bereko sorkari dira eta 78 jatorrizkoak; urte horietan itzulpena erlatiboki gutxitzen bada ere, gaien artean gertatu den desberdinkatzea eta hizkuntz normalizazioa kontutan harturik, liburu itzuliak gero eta eragin erabakiorragoa duela ohartzen dugu: sorkuntza osoaren ia % 30 hartzen du itzulpenak eta entziklopedia orokorrak, haur eta gazte-literatura, komikiak eta abar ia itzuliak dira.

1989ko liburugintzaren datuen arabera % 33,5 hartzen du itzuliak eta badirudi kopuru horren inguruan finkatzeko joera duela, nahiz eta etorkizunean zerbait gora egingo duen, dena den, itzulpenak gaur eguneko euskal kulturaren duen eragina neurtzeko orduan datu horiek oso motz geratzen dira, izan ere komunikabideetan, hots, prentsan, irratan, telebistan eta administrazioan itzulpenak garrantzi handia baitu, nahiz eta aipaturiko kopuruetan errainurik ez izan.

Kantitateari dagokionez portzentaiak esan bezala mamitu badira, kalitateari dagokionez, arnisten itzulpen formal, literalista eta ulergaitzetatik Orixen eta bere imitatzaileen itzulpen dinamiko, erredukzionista eta etnozentrikoetara bitarteko gama nabarreraino aurkitzen zen aukera bixikotik piskanaka edukina eta forma batasunean orekatuz, alderdi semantiko, estilistiko eta pragmatikoak integratzearen bila joan da azken hamarkadotako itzulpengintza, testu faktual eta zientifikoei dagokienean, terminologia finkatzeko lan nabaria UZEI eta Elhuyar bezalako erakundeek burutu dutelarik.

### Itzultzaileen prestakuntza

1976an hasi eta 1980ko urrira bitartean, hau da, Martuteneko Itzultzaile-Eskolak bere ateak ireki bitartean bost ikastaldi antolatu ziren Euskal Herrian sortzen ari ziren premiei erantzuteko.

16.- Sarasola, I., (1975). *Euskal Literatura Numerotan*, Kriseilu, Donostia

Lehendabiziko bi ikastaldiak programaz eta irakaslekoz berdintsuak izan ziren, lehena Arrasateko Cim-Ahizken eta bigarrena Ustaritzeko UEUn eman zirelarik. 1977ko irailean Eliza Ebanjelikoak Biblia euskara batura itzultzeko asmoarekin ikastaldi bat antolatu zuen Arantzazun Tubingako profesorea den Hans Peter Rürger doktoarean eta Mendoza jauna, Bibliaren espainolezko itzulpenen arduradunaren gidaritzapean. 1978-79 ikasturtean J. R. Etxebarriak berrogei ordutako ikastaldi bat eman zuen Santutxun.

1979an Euskaltzaindiak Itzultzaile-Eskola bat sortzeko aurretikosten bat eskatu zion X. Mendigureni eta 1980ko martxoan Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarritzko Prestakuntzarako Eskola izenburupean eskaturiko txostena eta itzultzaileen artean egindako inkestaren emaitzak Euskaltzaindiaren eskuetan ezarri ondoren, urte beraren urrian ireki zituen atek Martuteneko Eskolak. 1981-82 ikasturtean Eusko Jaurilaritzaren eskuetan jartzen da Eskolaren egitasmoen artean irakaskuntza emateaz gainera ikerketa, liburuen argitarapena eta liburutegi berezitu bat antolatzea zegoen. Horrela itzulpenari buruzko lau titulu eta SENEZ aldizkaria plazaratu ziren. Baina hasierako planak murriztuak geratu ziren eta 1988-89 ikasturtean Idazketa eta Itzulpen-Ikasketak diseinatu ziren, Eusko Jaurilaritzak eskainitako laguntza ekonomikoaren ahalbideetara egokituz<sup>17</sup>.

Bestalde, hamarkadaren erdi aldeara Gasteizko HAEEak ere Administrazio eta Lege-arloko Itzultzaile-Eskola bat sortzen du eta hiru promozio prestatzen ditu, harik eta 1991 ikasturtean bere atek itxi arte.

Irakaskuntzari dagokionez, zenbait erakunderen eskariz antolatu diren ikastaldiak eta 1990an Deustuko Unibertsitateak sortu duen euskarazko masterra eta 1990-91an Gasteizen EHUak sortu duen bigarren euskal masterra aipatu behar dira, itzulpengintzaz Unibertsitatea kontzientzia hartzen ari den seinaleztat.

Joan den hamarkadan itzulpenaren alorrean nabarmendu diren ezaugarriak laburbilduz gero honako hauek azpimarratu beharko lirateke:

—Euskalkietatik euskara baturako iragaitza ia erabatekoa itzulpenean

—Gaur eguneko premietara euskara egokitze eta hizkuntz oinegituraren prestatze-lanak bul-tzatzea.

—Euskararen ikuspegi enblematikoa gainditu ahala, sintaxia eta lexikoan komunikaziorako beharrezkoa den malgutasuna berreskuratzea.

—Usadiozko zenbait joera formalista eta dinamikotik berdin urrunduz, itzulpen integral eta "etikoago" baten bidea urratzea.

Itzulpen-eskaria ugaltzearen ondorioz eta itzulpenaren inguruan burutu den lan askotari-koak sortu eta zabaldu duen kontzientziaz Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile ta Interpretarien El-karte (EIZIE) antolatu da eta dagoeneko ehun eta berrogeita hamar kide dituen erakundea pauso nabariak ematen ari da itzultzailetzaren ikuspegia sakontzen, aberasten eta sistemati-zatzen. Ahalegin horren fruitu da sinatu den akordikoa bost urteko epean Literatura Uniber-tsaleko ehun bat titulu itzultzeko eta maila pribatuan ere sortzen ari den dinamika.

Azkenaldi honetan euskaratu eta plazaratu diren autore eta obren ikuspegi orokor bat emateko aski bedi esatea, besteak beste, honako hauek ikus dutela argia: André Gide (Te-

---

17.- Mendiguren, X. (1989): "Euskal itzultzaileen Ikasketak: hamarkada baten ikuspegia" in SENEZ, 1-2.º (5 urtea) 15-24 or.

seu), Edgar Allan Poe (Ligeia izu ipuinak), John Steinbeck (Perla), Patricia Highsmith (Poli-ki poliki haizetan), Boris Vian (Egunen aparra), M. Yourcenar (Adrianoren oroitzape-nak/Alexis), García Márquez (Heriotza iragarritako baten kronika/Jenerala bere laberintoan), Delibes (Kastilla Zaharreko ipuin berriak), J. Rulfo (Lautada sutan), Heinrich Böll (Katharina Blumen ohore galdua), Truman Capote (Gosaria Tiffanys-en), Manuel de Pedrolo (Bigarren jatorriko makinizkribua), François Mauriac (Terexa Desqueyroux), John Le Carré (Hotzetik etorri zen espia), Cesare Pavese (Burkidea), Italo Calvino (Biz-konde erdibitua), Robert Laxalt (Kafea hartzea Iruñean, Dominique), Graham Green (Hi-rugarren gizona), William Faulkner (Santutegia), William Golding (Eulien ugazaba), Charles Dickens (Gabon-kanta bat), Swift (Gulliverren bidaiak), Prévost (Manon Lescaut), Anton Txekhov (Ipuinak), Mark Twain (Huckleberry Finn-en abenturak), Rudyard Kipling (Kim), Joseph Conrad (Ilunbeen bihotzean), Knut Hansum (Gosea), eta abar.

Teatroari dagokionez Goldoni, Anouilh, Darío Fo, Shakespeare, Sastre, Woody Allen eta abar bezalako autore ezberdinak itzuli dira.

Poesiari dagokionez SUSA eta HEGATS aldizkarietan agertzen diren itzulpenez aparte ia ez da ezer argitara eman, garai bateko OLERTI aldizkariak urte luzetan garretan eduki zuen tradizioaz bestetara. Hala ere, gizartea eta erakunde publikoak piskanaka sentiberatuz doaz itzulpenarekiko eta horren lekuko dira Itzulpenaren Euskadi Saria, 1989. urtean lehen aldiz emana eta 800.000 pesetako zuzkidura duena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Itzulpen-saria, 600.000 pesetakoa, Jokin Zaitegi-saria, Gipuzkoako Kutxaren Orixe Saria Klasikoak elkar-tea eta abar.

Azkenik, gaur eguneko euskal itzultzailearen soslaia eman beharko bagenu bere gazte-tasuna azpimarratu beharko genuke: EIZIEko bazkideen gehiengoak 28-30 urte ditu, hirutik bi gipuzkoarrak dira eta itzultzaileen ikasketa-maila igo egin da azken urteotan. Hala ere itzul-tzaileen prestakuntza espezifikoki dagokionez, autodidaktoen kopurua zerbait urritu bada ere, proportzioa ez da gehiegi aldatu eta lenean aurkitzen diren zailtasunei dagokienez lexikoak eta sintaxiak neke-iturri izaten jarraitzen dute<sup>18</sup>.

Azken ondorio-gisa esan behar da, azken hamarkadan itzulpengintzaren alorrean aurrera-pauso nabariak eman badira ere, itzulpen-politika zehaztu bat ez egotea da ajerik handiena eta horregatik itzultzaileen % 96k itzulpen-politika bat diseinatu beharra dagoela aitortzen du-te. Horixe da, agian, hasi dugun hamarkadan itzultzaileek, argitaldarien, Euskal Administra-zioak eta Unibertsitateak elkarturik aurre egin beharreko erronka.

1991, urtarrila

18.- Zabaleta, J. M. (1989): "Euskal Itzulpengintzaren gaurko egoera", in SENEZ, loc. cit.: 35-41 or.